



Hiri hondakinen bilketa Sakanako Mankomunitatean

Biltzaileentzako protokoloa

Edukien taula

1	Hasierako egiaztapenak	3
2	Bilketa	3
2.1.	Bilketa puntuak	3
2.2.	Bilketa ordutegia	4
2.3	Bilketa irizpideak	4
2.3.1	Atez ate (etxekoa eta komertzioak)	4
2.3.2	Atez ate (poligonoak)	4
2.3.3	Mistoa	5
2.3.4.	Altsasu eta Irurtzun	5
3	Inzidentzien jakinarazpena	6
4	Deskargak	7
4.1	Prozedura orokorra	7
4.2	Pardelen deskarga	7
5	Gidatzea	8
6	Garbiketa	8
6.1	Kamioiaren garbiketa	8
6.2	Bilketa puntuak	8
7	Istripuak	8
8	Laneko arriskuen prebentzioa	9

1 Hasierako egiaztapenak

Bilketa hasi aurretik, honako hauek egiaztatuko dira:

- Ibilgailua hutsik eta garbi dago
- Erregai-mailak, olioak eta Adblue, gurpilen egoera eta ibilgailuaren argiak zuzenak dira
- Behar diren giltzak daramatzazue
- Kamioiaren telefonoa piztuta eta martxan dago

Egindako egiaztapenekin zerikusia duen gorabeheraren bat badago, arduradunari jakinaraziko zaio.

Egiaztapenak egin ondoren, dagokion frakzioko edukiontzi garbiak kamioian kargatzen dira, bai eta pixoihal-kutxak ere, eta bilketa zerbitzua hasten da.

2 Bilketa

2.1. Bilketa puntuak

Komertzioen edukiontziak ibilbidearen oinean eta ibilgailua geldi daitekeen lekuetan biltzen dira. Leku desegokietan ateratzen badira, aldatzea proposatuko da.

Ez da inolako bilketarik egingo komertzio baten barruan, salbu eta zerbitzuaren arduradunaren berriazko agindu bat badago.

Bilketa puntuak edo ibilbideak aldatzeko edozein proposamen zerbitzuaren arduradunari jakinarazi beharko zaio, eta haren onespena beharko du ezartzeko.

Kasu guztietan, zerbitzuaren arduradunak markatutako ibilbideari jarraituko zaio.

2.2. Bilketa ordutegia

Ibilgailua igarotzen den unean bilketa gunean dauden edukiontziak eta etxeko edota komertzioen hondakinak bakarrik biltzen dira. Erabiltzaileek hondakinak ateratzeko ordutegia aurreko eguneko 20:00etatik bilketa eguneko 6: 00etara izango da.

Bilketa ordutegien edozein aldaketa bilketaren arduradunak onartu beharko du.

2.3 Bilketa irizpideak

2.3.1 Atez ate (etxekoa eta komertzioak)

Egun horri dagokion frakzioa jaso behar da, lurrian barreiatuta dauden hondakinak barne, beste frakzio batzuekin nahastuta ez badaude.

Pixoihalak egunero jasoko dira, igandeetan izan ezik, eta inola ere ez dira pixoihalak biltzen ari den frakzioarekin nahastuko, errefusarekin izan ezik.

Bilketaren bat egiten ez denean, beharrezkoa da inzidentziaren argazkia ateratzea eta egunean bertan arduradunari bilketa burutu ez izanaren arrazoiak jakinaraztea.

2.3.2 Atez ate (poligonoak)

Poligonoetan, etxeko hondakinekin parekatu daitezkeen hondakinak baino ez dira bilduko, eta gehienez ere edukiontzi bat asteen, errefusaren kasuan.

Hustu ondoren, edukiontziak dagokien lekuan utzi beharko dira, bi freno jarrita.

Bilketaren bat egiten ez denean, beharrezkoa da inzidentziaren argazkia ateratzea eta egunean bertan arduradunari bilketa burutu ez izanaren arrazoiak jakinaraztea.

2.3.3 Mistoa

Ibilbideari dagokion frakzioa jasoko da, lurrean barreiatuta dauden hondakinak barne, salbu eta beste frakzio batzuekin nahastuta badaude.

Ekarpen etxoletatik kanpo ez da edukiontzirik egongo, marroia izan ezik, barruan horretarako lekurik ez badago, edo ostalaritza-establezimenduei esleitutako edukiontzia ezik. Hustu ondoren, etxolaren barruan frakzio bakoitzerako edukiontzi bat dagoela gutxienez ziurtatu beharko da (organikoa, papera eta kartoia, ontzi arinak eta errefusa).

Edukiontzia bi freno jarrita utzi beharko dira.

Bilketaren bat egiten ez denean, beharrezkoa da inzidentziaren argazkia ateratzea eta egunean bertan arduradunari bilketa burutu ez izanaren arrazoiak jakinaraztea.

2.3.4. Altsasu eta Irurtzun

Ibilbideari dagokion frakzioa jasoko da, lurrean barreiatuta dauden hondakinak barne, salbu eta beste frakzio batzuekin nahastuta badaude.

Bilketa-puntu bakoitzak frakzio guztietarako (organikoa, papera eta kartoia, ontzi arinak eta errefusa) edukiontzia izan beharko ditu.

Edukiontzia bi freno jarrita utzi beharko dira.

Bilketaren bat egiten ez denean, beharrezkoa da inzidentziaren argazkia ateratzea eta egunean bertan arduradunari bilketa burutu ez izanaren arrazoiak jakinaraztea.

3 Inzidentzien jakinarazpena

Hondakin motak bereiztearekin zerikusia duten inzidentziak hezitzaileei jakinarazi beharko zaizkie. Gertakarien artean honakoak daude:

- gaizki bereizitako edo bereizi gabeko hondakinak (adibidez, gai organikoko edukiontzi bat hutsik badago hura jasotzera joaterakoan, abisua pasatu behar da beti)
- ondo bereizitako frakzio organikoa, baina plastikozko poltsan, kubo marroirik gabe
- pixoihalen poltsan beste hondakin batzuk egotea
- edukiontzietatik kanpo hondakinak egotea
- gaizki bereizitako hondakinak egotea, edo bereizi gabeak
- errefusa edukiontzi bat baino gehiago egotea industrialdeetan kokatutako enpresetan
- edukiontzietan inpropioak egotea
- tamaina handiko hondakinen presentzia
- edukiontzien falta dira frakzio batzuetarako
- edukiontzi hautsiak edo kentzeko buelta emanda daudenak
- edukiontziak edo posteak eta zutoinak desagertzea
- posteak hautsiak edo inklinatuak egotea

Ibilgailuekin eta bilketa-logistikarekin lotutako inzidentziak egun berean jakinarazi beharko zaizkio zerbitzuaren arduradunari. Inzidentzia logistikoek honako hauek biltzen dituzte:

- moztutako kaleak edo blokeatutako sarbideak
- kamioiaren edo kutxaren matxurak
- fugak
- bilketa puntuak aldatzeko proposamenak
- ibilbidea aldatzeko proposamenak
- bilketa azpiegitura eta haren parteak (gurpilak, frenoak, edukiontzi marroirako zutoinak, ekarpen etxolak, etab.) mantentzea edota garbitzea behar izatea.
- arriskuak

4 Deskargak

4.1 Prozedura orokorra

Materiala egunero deskargatzen da ibilbidea amaitutakoan, ibilgailua kargatuta uzteko berariazko agindurik ez badago. Deskargak Arbizuko transferentzia plantan egiten dira.

Deskargatu aurretik, nahitaezkoa da zein kaiatan deskargatu behar den galdetzea. Arduradunaren aginduari jarraituko zaio beti.

Deskargak irauten duen bitartean, kamioia gidatzen ari den pertsonak gutxienez beste pertsona batekin joan beharko du beti.

Deskargatzeko prozedura honako hau da:

1. Kamioia dagokion kaian sartu eta atea/katea ireki, itxita badago
2. Piztu gabarra (erralentia)
3. Deskargatzen hasi. Toberan hondakinak pilatzen hasten direnean, piztu pisu mugikorra
4. Tobera ez bada husten, jaitsi beheko mailara eta begiratu gabarra karga-posizioan dagoen.
5. Deskargaren ondoren, hondakinak gabarran arrasean geratzen direnean, itzali pisu mugikorra
6. Kajan hondakinik geratzen bada, kendu eskura dauden erremintekin (1. kaiaren kanpoko horman daude). Ez erabili mangera
7. Deskarga-eremua eskura dauden tresnekin garbitzea. Ez erabili mangera
8. Toberara sartzeko atea/katea ixtea

Deskargaren ondoren eta kamioia mugitzen hasi aurretik, kaja jaitsi behar da.

4.2 Pardelen deskarga

Bilketa amaitzean, pixoihal kutxak arduradunak adierazitako kaian deskargatuko dira. Ez dira inoiz deskargatuko ontziak, kartoia edo organikoa dauden leku berean.

Bilketa amaitu aurretik pardelen kutxak hustu behar badira, une horretan dagoen udalerriko larrialdiguneko errefusa edukiontziak erabiliko dira. Edukiontzi horiek hustu egingo dira etxebizitza eta komertzioen errefusa biltzean.

5 Gidatzea

Trafiko-seinaleak uneoro errespetatuko dira, bai eta gidatzeko arauak ere..

6 Garbiketa

6.1 Kamioiaren garbiketa

Kamioia egunero garbitu behar da. Bilketarako erabiltzen diren kuboak eta pardelentzako kaxak barrutik eta kanpotik garbitu beharko dira, arduradunak adierazitako maiztasunarekin.

6.2 Bilketa puntuak

Bilketa egitean hondakinak errepidera isurtzen badira, bilketako langileek hauek jaso eta errepidea garbitu beharko dute.

Gauza bera aplikatuko da egun horretan biltzen ari den frakzioari dagozkion hondakinak badaude bilketa puntuaren inguruan.

7 Istripuak

Istripuren bat gertatuz gero, urrats hauek emango dira:

- Bete partea
- Ezin bada parterik gin, ezin delako beste ibilgailuarekin harremanetan jarri, datuak utziko zaizkio, geroago parte ahal izateko.
- Gertatutakoaren berri emango zaio zerbitzuaren arduradunari, eta parte Lakuntzako bulegoan utziko da bilketa amaitzean.

8 Laneko arriskuen prebentzioa

Arriskuak saihesteko, lanpostu bakoitzak behar dituen norbera babesteko ekipamenduak eraman behar dira.

GIDARIA

Segurtasun-oinetakoak
Arropa islatzailea
Ur-trajeak
Kolpeetatik babesteko betaurrekoak
Arrisku mekanikoak saihesteko eskularruak
Ffp2 Nr maskarak

PEOIA

Segurtasun-oinetakoak
Arropa islatzailea
Ur-trajeak
Kolpeetatik babesteko betaurrekoak
Arrisku mekanikoak saihesteko eskularruak
Ffp2 Nr maskarak
Tapoiak
Babes-kaskoa

Laneko arriskuen ebaluazioaren arabera, 15 km/h-ko abiadura ez gainditzea gomendatzen da bilketa kamioiaren estribuetan langileekin zirkulatzen denean eta 300 m edo gutxiagoko distantzia laburretara joan-etorriak egiten direnean.

Langileek beren lanpostuetan hautematen dituzten arrisku-egoeren berri eman behar dute. Lanpostuari lotutako arriskuei buruzko informazioan guztiak sartzan ez direla ikusten bada, mankomunitateko arduradunei jakinaraziko die.

Langileek arriskuen prebentzioaren arloan dituzten betebeharrak ez betetzeak diziplina-zehapena ekar dezake.